

GASTEIZKO AIREPORTUKO BIDAIARIAREN
EZAUGARRIEI ETA AIREPORTUKO JARDUERAN
ETA TOKIKO EKONOMIAN SUSTAPEN ETA
KONEKTIBITATE EKINTZEK DUTEN ERAGINARI
BURUZKO ALDIZKAKO AZTERKETA
KONTRATATZEKO PROZEDURA IREKIAREN
ADMINISTRAZIO PRESKRIPZIO BEREZIAK

VIA, PROMOCIÓN DEL AEROPUERTO DE VITORIA SA

GASTEIZKO AIREPORTUA SUSTATZEKO EKINTZEN ERAGINARI BURUZKO INKESTA ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN AGIRIA

AURKIBIDEA

- 1) Kontratuaren xedea
- 2) Kontratuaren bidez beteko diren beharrak
- 3) Lizitazioaren aurrekontua
- 4) Aurrekontuko kontsignazioa
- 5) Kontratuaren araubide juridikoa
- 6) Adjudikatzeko prozedura
- 7) Lizitatzailerekin negoziatu beharreko gaia
- 8) Lizitatzeko baldintzak
- 9) Eska daitezkeen bermeak
- 10) Eskaintzak aurkeztea
- 11) Proposamenak aurkezteko modua
 - a. A GUTUN-AZALA, DOKUMENTAZIO OROKORRA
 - b. B GUTUN-AZALA, ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA MATEMATIKO BATEN ARABERA BALORATZEKO DOKUMENTUAK
 - c. C GUTUN-AZALA, BALIO-JUDIZIOEN ARABERA BALORATZEKO DOKUMENTUAK
- 12) Eskaintzak aurkezteko epea
- 13) Aldaerak
- 14) Gutun-azalak irekitzea eta adjudikatzeko proposamena
- 15) Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dakartzaten eskaintzak baloratzeko irizpideak
- 16) Kontratua adjudikatzeko irizpideak
- 17) Bi eskaintzaren edo gehiagoren arteko berdinketa ebaztea
- 18) Adjudikazioa
- 19) Kontratua egitea
- 20) Behin betiko bermea eratzea eta behin-behineko bermeak ezereztea edo itzultzea

- 21) Konfidentzialtasuna
- 22) Prezioak berrikustea
- 23) Kontratua egikaritzea
- 24) Kontratistaren betebeharrak
- 25) Epeak eta zehapenak
- 26) Ordainketen araubidea
- 27) Kontratua aldatzea eta suntsiaraztea
- 28) Kontratua luzatzea
- 29) Kontratua betetzea eta azkentzea
- 30) Likidazioa
- 31) Kontratazio organoaren prerrogatibak
- 32) Jurisdikzio eskuduna
- 33) Dokumentuak aurkezteko modua
- 34) Prozeduraren hizkuntza

1) Kontratuaren xedea

Kontratuaren xedea aldizkako azterlan bat egitea da, Gasteizko aireportuko bidaiarien ezaugarriak eta sustapen nahiz konektibitate ekintzek aireportuko jardueran eta tokiko ekonomian duten eragina sakon ezagutzeko.

Gainerako ezaugarri teknikoak baldintza teknikoen agirian zehaztuko dira.

Administrazio baldintza berezien agiri honek adjudikatzeko prozeduraren erregulazioa osatzen du.

2) Kontratuaren bidez beteko diren beharrak

Administrazio baldintza berezien agirian jasotzen den kontratu hau egikarituta, honako behar hauei erantzungo zaie:

- Aireportua eta haren ingurunea sustatzeko ekintzei buruzko itzulerako informazioa eskuratzea.
- Sustapen ekintzak hobetzea, txostenaren ondorioak kontuan hartuta.

3) Lizitazioaren aurrekontua

Kontratuak, guztira, ehun eta laurogei mila (180.000) euroko aurrekontua du, kontratuak irauten duen gehieneko denboran, luzapena ere aintzat hartuta.

Luzapena aurreikusten denez, prezioa honela banatuko da: laurogeita hamar mila (90.000) euro hasierako aldian, eta laurogeita hamar mila (90.000) euro luzapenean, hala erabakitzen bada.

Zenbateko horiei BEZa gehitu beharko zaie.

4) Aurrekontuko kontsignazioa

Kontratu hau VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietatearen aurrekontuaren kontura finantzatuko da. Sozietate hori berariaz sortu zen, besteak beste, kontratu honi darien finantzaketa beharrei erantzuteko, bazkideen aurrekontuei buruzko akordio hauetan oinarrituta:

Eusko Jaurlaritza, VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietatearen aldeko zuzeneko dirulaguntza izenduna, 1.51413.45000 aurrekontu partidari dagokiona, Jaurlaritzaren Kontseiluak 2024ko apirilaren 23an erabakitakoa.

Arabako Foru Aldundia, 15101.G/433153/44900151 partidako konpromiso kreditua, Forondako VIA sustatzeko dirulaguntza.

Vitoria-Gasteizko Udala, 0821 4331 48175 partidako konpromiso kreditua, «VIArekiko HITZARMENA, BIDARIAK SUSTATZEKO».

5) Kontratuaren araubide juridikoa

Kontratua eta prestalanak honako araudi honen bidez arautzen dira:

Alderdi kontratatzaileei buruzko prestaketa alderdiak, bereziki lizitatzzaileenak eta adjudikatzeko modua, Sektore Publikoko Kontratuaren azaroaren 8ko 9/2017 Legeari (aurrerantzean, SPKL) loturik daude. Lege horren bidez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten da Espainiako ordenamendu juridikora.

Baimenak eta lizentziak ere (alde aurreko jakinarazpena barne, beharrezkoa balitz) aplikagarriak dira, eta adjudikatzzaileen erantzukizunpekoak.

Aplikagarriak dira, era berean, VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearentzat erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratazio prozedurak arautzen dituzten barne jarraibideak.

Eta kontratua egikaritzean, kontratuan zehazten den araudia bete beharko da.

Izaera juridiko pribatua duenez, antolamendu juridiko pribatuari lotuko zaio kontratuaren egikaritzea.

6) Adjudikatzeko prozedura

Kontratua prozedura irekia erabiliz esleituko da (SPKLren 318. artikulua, lege horren 156. artikulutik 158.era bidalita).

Lizitazioaren iragarkia VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietatearen web orrian («Kontratatzzaileen profila» atalean) eta Eusko Jaurlaritzaren kontratazio plataforman argitaratuko da.

Eskaintzak aurkezteko epea 2026ko martxoaren 10ean amaituko da.

Batzorde tekniko batek egingo du adjudikatzeko proposamena, eta honako 3 (hiru) pertsona hauek osatuko dute batzordea:

1. VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietateko teknikari bat.
2. Arabako Merkataritza, Industria eta Zerbitzu Ganberako teknikari bat.
3. Kanpoko aholkulari juridiko bat.

Batzorde Teknikoaren osaera baliozkoa izan dadin, batzordea osatzen duten hiru kideetatik bi (2) kidek egon beharko dute gutxienez.

Kontratua adjudikatzeko gehieneko epea bi hilabetekoa izango da, dokumentazioa jasotzeko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Aurkeztutako eskaintzak 2026ko martxoaren 11n irekiko dira, A eta C gutun-azalez denaz bezainbatean, eta 2026ko martxoaren 13an, B gutun-azalari doakionez.

7) Lizitatzailleekin negoziatu beharreko gaia

Eskaintzak aurkeztu ondoren, aurretiaz zehaztu den moduan, gaitasun baldintzak bete eta funtsezko baldintza formalak betetzen direla, ez da prozedura honetan aurreikusitako gaietatik bat ere negoziatuko lizitatzailleekin.

8) Lizitatzeko baldintzak

Adjudikazio prozeduran aurkeztu ahal izateko, pertsona fisiko edo juridiko interesdunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

Nortasun fisikoa edo juridikoa izatea, jarduteko gaitasun osoa izatea, eta kontratatzea debekatzen dion egoerarik ez izatea, SPKLren 71. artikulua dioenari jarraikiz eta SPKLren 725. artikulua dioena ezertan eragotzi gabe.

Kontratuaren xedea gauzatzeko gaituta egotea; bereziki, kontratazioaren xede den gaiari buruzko aholkularitza lanei eta azterlanei dagokien guztia gauzatzeko. Baldintza teknikoan agiriak lizitatu ahal izateko berariazko betekizunak ezarri ahal izango ditu.

Kaudimen teknikoa izatea kontratuaren edukia eta adjudikazioaren xede diren prestazio guztiak behar bezala betetzeko behar diren baliabide material, pertsonal eta antolamenduzkoetan.

Kontratuko prestazioak modu fidagarrian gauzatu ahal izateko gaitasun ekonomikoa izatea; lizitatzeko interesa duen enpresa konkurtsoko egoeran, aurrekonkurtsoko egoeran, enplegu erregulazioko egoeran edo enpresaren araubide ekonomikoari eragiten dion beste edozein egoeratan badago, edo finantza nahiz langileen egoera nabarmen eskasten edo murrizten duen inguruabarrean badago, ezin izango da prozedura honetan aurkeztu.

9) Eska daitezkeen bermeak

Prozeduran aurkezteko ez da behin-behineko bermerik eratu beharko.

10) Eskaintzak aurkeztea

I.- Aurkezpen elektronikoa Euskadiko Kontratazio Publikoaren ataria erabiliz egingo da, web orriko argibideei eta agiri honetan adierazitakoari jarraituz.

II.- Paperean aurkeztea ere salbuespenez onartuko da, baldin eta era elektronikoa aurkeztea ezinezkoa dela justifikatzen bada. Salbuespen hori zorrotz interpretatuko da, eta, nolanahi ere, ez da onargarria izango bitarteko elektroniko edo informatikorik ez edukitzea aurkezpen elektronikoa egitetik salbuesteko. Akats informatikoen edo sareko akatsek soilik ahalbidetuko dute paperean aurkezteko modua onartzea.

III.- Aurreko atalean jasotzen den aurkezpen fisikoa dela eta, lizitatzeko dokumentazioa gutun-azal itxietan aurkeztuko da, kanpoaldean identifikatuta, honako esaldi hau idatzita: **«GASTEIZKO AIREPORTUAREN SUSTAPENARI BURUZKO INKESTEN AHOLKULARITZA KONTRATATZEKO LIZITAZIOA, ERREF. PAVIA_0126»**. Gainera, lizitatzaillearen izena, helbidea eta posta elektronikoa adierazi beharko dira gutun-azalean, bai eta haren sinadura edo baliozkotasunez ordezkatzen duenaren sinadura. Gutun-azal bakoitzaren barruan, orri bat sartuko da bereiz, edukiak adierazita, eduki guztiak aurkibide eran antolatuta.

Lizitazioaren iragarkian azaltzen diren gutun-azalak VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen bulegoetan aurkeztu badira, entregatutako dokumentazioaren agiria emango zaio aurkeztleari. Bertan, lizitatzaillearen izena, lizitazioaren legenda, aurkezpenaren data eta ordua jasoko dira. Horretarako, aurkezpen eskabidearen kopia aurkeztu beharko du, aurkeztu dituen dokumentuak adierazita.

Orobat, era elektronikoa aurkezterik ez badago, edozein mezularitza zerbitzu erabiliz igor daitezke gutun-azalak; kasu horretan, lizitatzaillearen erantzukizuna izango da, ez besterena, VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen bulegoetan eta epearen barruan aurkeztea.

Dokumentazioa adierazitako epean eta aurreikusitako formalitateak beterik jasotzen ez bada, ez da onartuko. Gaitasuna eta kaudimena egiaztatzen duten agiriak zuzendu ahalko dira; ez, ordea, agiri horiek bidalketan aurkeztu ez izana. Era berean, ez dira onartuko aztertzen eta onartzen diren agiriekin bat ez datozen eskaintzak, lizitazioaren oinarriko aurrekontua gaiztatu dutenak, ezarritako eredu funtsean aldatzen dutenak, proposamenaren zenbatekoan akats nabarmena dutenak, edo lizitatzailleak akatsik edo funtsik ez duela eta bideraezinak direla aitortzen dutenak.

11) Proposamenak aurkezteko modua

Proposamenak hiru gutun-azal korrelatibotan aurkeztuko dira, horietako bakoitzak ondoko errotulazioa izango duela:

A GUTUN-AZALA: DOKUMENTAZIO OROKORRA

Gutun-azal honetako dokumentuak jatorrizkoak edo kopiak izan daitezke, kautoak edo indarreko legeriaren arabera autentifikatuak.

a) Lizitatzaillearen nortasuna eta gaitasuna egiaztatzen duten agiriak.

1. Enpresen jarduteko gaitasuna honako hauen bidez egiaztatuko da: eratze eskritura edo agiria, estatutuak edo sortze egintza, bada, jardura arautzen duten arauak jasotzen dituenak, eta, hala badagokio, erregistro publiko egokian behar bezala inskribatuta daudela egiaztaturik, pertsona juridiko motaren arabera.

2.– Kontratuaren xedea den jardura edo prestazioa egiteko enpresaren gaitasun jakin bat eskatzea dagoenean, lanbide gaitasunaren baldintzak egiaztatzen dituen ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkeztuko da.

3. Ordezkaritza egiaztatzeko agiriak.

Beste baten izenean agertzen diren edo proposamenak sinatzen dituzten pertsonak fede-emaila publiko batean aurrean egiletsitako ordezkaritza ahalordea aurkeztuko dute.

Lizitazzailea pertsona juridikoa bada, ahalorde orokorrak, hala badagokio, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon beharko du. Egintza jakin baterako ahalorde berezia bada, ordea, ez da beharrezkoa izango aldez aurretik Merkataritza Erregistroan inskribatzea.

Era berean, ordezkaritza ondorioetarako ahalorde nahikoa duen pertsonak bere Nortasun Agiri Nazionalaren kopia konpultsatua aurkeztu beharko du, notarioak edo administrazioak konpultsaturik, edo, hala badagokio, ordezkaritza aitortzen dion agiria.

4. Lizitazzailearen datuak VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietateak tratatzeko baimena ematen duen dokumentua, datu pertsonalak babesteari buruzko Estatuko eta Europako Erkidegoko araudian eskatutako formalitateak beteta. (X. eranskineko erredua).

b) Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzen duten agiriak

Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa honako bide hauetakoren bat erabiliz egiaztatuko da:

1. Amaitutako azken hiru urteetako negozioen urteko bolumenaren aitorpena, zeinetan egiaztatuko baita hiruren baturak lizitazio-iragarkian finkatutako kontratuaren prezioaren zenbatekoa bi aldiz gainditzen duela.

Lizitazzailearen urteko negozio bolumena egiaztatzeko, onartutako eta Merkataritza Erregistroan gordetako urteko kontuak erabiliko dira, baldin eta enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, inskribatuta egon behar duen erregistro ofizialean gordetakoak. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuen bidez egiaztatuko dute beren urteko negozio bolumena.

2. Arrisku profesionalengatiko kalte-ordainen aseguru badagoela eta indarrean dagoela egiaztatzen duen agiria, lizitazio iragarkian eskatzen den zenbateko berdinekoa edo handiagoa. Jatorrizko dokumentazioa aurkeztu beharko da (edo, bestela, aseguru etxeak konpultsatutako kopia), aseguru hori badagoela, indarrean dagoela eta ordainketak egunean dituela egiaztatzen duena; eta erantzukizunpeko adierazpen bat ere aurkeztu beharko da, kontratuak irauten duen bitartean aseguru hori baldintza berdinetan edukiko duela adierazteko.

3. Ondare garbia edo aktiboen eta pasiboen arteko ratioa, urteko kontuak onartzeko betebeharra mugaeguneratuta dagoen azken ekitaldi ekonomikoaren itxieran, lizitazio-iragarkian finkatutako kontratuaren prezioaren zenbatekoa halako bi.

Itxitako azken ekitaldiari dagozkion urteko kontu onartuen bidez egiaztatuko da, eta dagokion Merkataritza Erregistroan edo erregistro ofizialean gordailutuko dira, aurkezteko

epea amaituta badago eta gordailututa badaude; hala ez badaude, administrazio organo eskudunak onartu izanaren ziurtagiriarekin batera aurkeztu beharko dira. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentarioen eta urteko kontuen liburuak aurkeztu beharko dituzte.

4. Nolanahi ere den, Herri Administrazioetako Lizitatzailen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialeko inskripzioak egiaztatu egingo ditu enpresaburuaren ekonomia eta finantza kaudimenaren baldintzak sektore publikoko kontratazio organo guztien aurrean, bertan adierazitakoaren arabera eta kontraktorik frogatu ezean. Beraz, inskripzio hori egiaztatzen duen jatorrizko dokumentua edo fotokopia konpultsatua, lizitazioa iragarri ostekoa, aurkeztuz gero, betekizun hori betetzat joko da ondorio guztietarako.

c) Kaudimen teknikoa edo profesionala egiaztatzen duten agiriak

Enpresaburua beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu ahalko da, haiekin dituen loturen izaera juridikoa zeinahi dela ere, baldin eta frogatzen badu, kontratua egikaritzeko, bitarteko horiek badituela. Kaudimena SPKLren 75. artikulua jasotzen dituen bitartekoak ez direnez egiaztatzeko, kontratua gauzatzeko bitarteko horiek badituela frogatu beharko da, baliagarritasun konpromisoaren agiria aurkeztuta.

Adkudikaziodun izanez gero, lizitatzailak kaudimena egiaztatzeko aurkeztu dituen baliabide berberak erabiliz gauzatuko du kontratua. Aurreikusi ezin diren arrazoiengatik soilik ordeztu ahalko ditu, kaudimen baliokidea duten beste bide bitarteko batzuk erabiliz eta Administrazioaren alde aurreko baimena eskuratuta.

Gaitasun teknikoa edo profesionala egiaztatzeko, bide hauetakoren bat erabili beharko da:

1. Azken bost urteetan egindako zerbitzu edo lanik garrantzizkoenen zerrenda, horien zenbatekoa, datak eta hartzailea, publikoa edo pribatua, zehaztuta, kontratuaren xedeari dagokionez. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat denean, organo eskudunak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagirien bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatu bat denean, hark emandako ziurtagiri baten bidez, edo, ziurtagiririk ezean, enpresaburuaren adierazpen baten bidez; hala badagokio, agintari eskudunak zuzenean jakinaraziko dizkio ziurtagiri horiek kontratazio organoari.

2. Kontratuan parte hartzeko konpromisoa hartzen duten enpresako teknikarien edo unitate teknikoaren adierazpena.

3. Enpresaren urteko batez besteko plantillari eta azken hiru urteetako zuzendarien garrantziari buruzko adierazpena, dagokion justifikazio dokumentazioarekin batera.

4. Lanak edo prestazioak egiteko erabiliko den makineria, materiala eta ekipo teknikoa adierazten duen aitortpena. Horrekin batera, dagozkion egiaztapenak aurkeztu beharko dira.

d) Erantzukizunpeko adierazpenak.

Halaber, lizitatzailleek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte:

1. SPKLren 71. artikulua jasotzen dituen kontratatzeko debekuak ez izateari eta jarduteko gaitasun osoa izateari buruzko erantzukizunpeko adierazpena. (III. eranskineko eredua).

2. Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

Adierazpen horiek lizitatzeko gonbidapenaren osteko data izan behar dute. (IV. eranskineko eredua).

3. Erantzukizunpeko adierazpena, SPKLren 70. artikuluko 1. paragrafoak xedatutakoaren arabera, lizitazio honetan jasotzen diren zehaztapen teknikoak edo kontratua prestatzeko dokumentuak egiten parte hartu ez izanari buruzkoa. (V. eranskineko eredua).

4. Pertsona fisikoek, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez, edo pertsona juridikoen administratzaileek, beren zuzendaritza- edo ordezkaritza-organo eskudunak emandako ziurtagiri egokiaren bidez, adierazpen edo ziurtagiri horretan zehaztu beharko dute ez daudela Kargu Publikoen Jokabide Kodea eta Interes Gatazkak arautzen dituen Eusko Legebiltzarraren 1/2014 Legean xedatutalo bateraezintasun kausei loturik. (VI. eranskineko eredua).

5. Kontratazio Organoak VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen aldeko zerga eta Gizarte Segurantzako baldintzak betetzen direla administrazio publiko eskudunaren aurrean egiaztatu ahal izateko behar besteko baimena. (VII. eranskineko eredua).

6. Desgaitasuna duten pertsonen kontratazioari buruzko araudia betetzen dela egiaztatzea, edo apirilaren 8ko 364/2005 Errege Dekretuak, desgaitasuna duten langileen aldeko erreserba kuotaren salbuespenezko betetze-maila arautzen duenak, xedatutako betetzen dela egiaztatzea. (VIII. eranskineko eredua).

7. Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak xedatzen duena egiaztatzea; zehazki, horretara behartuta dagoen enpresaburuak Lege horren 45. artikulua dakarren plana aurkeztu eta behar bezala ezarrita dagoela egiaztatu beharko du. (IX. eranskineko eredua).

8. Talde bereko enpresen zerrenda: Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorraren 86.1 artikulua xedatutako araua aplikatzearen ondorioetarako, SPKLren 139.3 artikulua xedatutakoari jarraikiz, lizitatzailleek aitortpena aurkeztu beharko dute, enpresa talde bateko kide ez direlako edo, Merkataritza Kodearen 42. artikulua jasotako kasuren batean egonik, enpresa talde bateko kide direlako, talde horretako enpresen eta lizitazioan aurkeztzen direnen zerrenda adierazita. (X. eranskineko eredua).

9. Konfidentzialtasun adierazpena: lizitatzailleek adierazpen bat aurkeztu ahalko dute, eta, beren iritzira, konfidentzialtzat jotzen diren dokumentu administratibo eta teknikoak eta aurkeztutako datuak adierazi ahalko dituzte. (XI. eranskineko eredua).

10. Azpikontratazioa: azpikontratatzeko aukera bidezkoa balitz, lizitatzailleek azpikontratatzea aurreikusita duten kontratuaren zatia adierazi beharko dute eskaintzan, zenbatekoa eta enpresaren izena edo ezaugarriak adierazita, kontratua gauzatzeko ardura emango zaien azpikontratisten kaudimen profesionaleko edo gaitasun teknikoko baldintzen arabera definituta, eta kontratua indarrean dagoen bitartean kanpoko baliabide horiei eustea. (XII. eranskineko eredu).

11. Helbide elektronikoa: lizitatzailleak helbide elektroniko bat aurkeztu beharko du, eta, bertan, VIAk adostutako komunikazioak igorri ahalko dizkio. Helbide horretan jakinaraziko da kontratazio prozedura honen izapideak aurrera egin duela. Helbide elektronikorik adierazten ez bada, ulertuko da gutun-azalaren kanpoaldean dagoen helbide elektronikoa izango dela kontratazio prozedura honen izapideei buruzko jakinarazpenetarako helbidea. (XIII. eranskineko eredu).

12. Baldintza teknikoaren agiriaren 8. klausulan adierazitako alderdiak egiaztatzen dituzten agiriak; aplikatu beharreko araudia betetzen dela eta kontratuko baldintzak eta betebeharrak beteko direla adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena. (XVIII. eta XIX. eranskinetako eredu).

13. Agiri horiek guztiak baldintza agiri honetan adierazitako ereduen arabera aurkeztuko dira.

B GUTUN-AZALA: ESKAINTZA EKONOMIKOA ETA FORMULA MATEMATIKO BATEN ARABERA BALORATZEKO DOKUMENTUAK

B gutun-azalean, eskaintza ekonomikoa sartuko da, erantsitako ereduaren arabera. (I. eranskineko eredu).

Eskaintza ezin da eskuz aurkeztu eta, nolana ere, zuzenketarik eta zirriborrorik gabe aurkeztu behar da, data eta lizitatzen duen enpresaburuaren sinadura adierazita.

Eskaintako prezioa preskripzio teknikoaren agirian ezarritakoaren arabera izango da, eta baldintza agiri honekin batera doan ereduaren arabera aurkeztu beharko da.

Gutun-azal horretan, baldintza teknikoaren agiriaren 6. eta 7. ataletan adierazitako dokumentuak ere sartuko dira. (XVI. eta XVII. eranskinak).

C GUTUN-AZALA: BALIO JUDIZIOEN ARABERA BALORATZEKO DOKUMENTUAK

Gutun-azal horretan, epigrafe honetan jasotzen diren neurriak baldintza teknikoaren agirian egiaztatzen dituzten dokumentuak sartuko dira, hau da, baldintza teknikoaren agiriaren arabera eskaintza teknikoa, balio judizioen arabera baloratu beharrekoa (agiri teknikoaren 5. atala). (XIV. eta XV. eranskinak).

Azalpen ondorioetarako, egokitzen jotzen dituen dokumentuak aurkeztu ahalko ditu lizitatzailleak, eta zein diren konfidentzialak adieraztea izango du.

Hori guztia agiri honetan adierazten den dokumentazioa erantsita egingo da.

12) Eskaintzak aurkezteko epea

Dokumentuak, gutun-azaletan behar bezala sartuta, 2026ko martxoaren 6ra arteko epearen barruan aurkeztu beharko dira.

Aurkezpenaren formalitateei dagokienez, agiri honetako 10. eta 11. klausuletan xedatutakoari jarraituko zaio.

Eskaintza aurkezteak esan nahi du lizitatzailleak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela baldintza teknikoan agirian eta administrazio baldintza berezien agirian jasota dauden klausulak, bai eta lizitazio prozedura honetako gainerako agiriak ere.

Eskaintza bat aurkeztu ondoren, ezin izango da kendu; hala ere, lizitazioa amaitutakoan, lehiaketan parte hartzen duten enpresaburuei eta adjudikaziodun ateratzen ez direnei agiriak itzuliko zaizkie.

13) Aldaerak

Balio judiizoen arabera baloratzeko proposamenak alde batera utzita, ez da aldaerarik onartuko.

14) Gutun-azalak irekitzea eta adjudikatzeko proposamena

A eta C gutun-azalak kontratazio organoaren egoitzan irekiko dira, 2026ko martxoaren 10ean. Batzorde teknikoak edukia aztertuko du, eta gutun-azaleko dokumentazioak baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatuko du, aurkeztu duen pertsona lizitatzailatzat har dadin.

Batzorde Teknikoak konpon daitezkeen akatsak edo omisioak antzematen baditu, aktan jasoko du horren berri, eta adjudikaziodun potentzialak, hala badagokio, akats horiek zuzendu beharko ditu adjudikazioa egin aurretik; bestela kontratuaren adjudikazioa galtzeko arriskua hartuko du.

Gaitasun baldintzak (A gutun-azala) aztertu ondoren eta C gutun-azalaren edukia baloratu ondoren, eskaintza ekonomikoari buruzko gutun-azala (B gutun-azala) irekiko da 2026ko martxoaren 12an.

Batzorde teknikoak adjudikatzeko txostena prestatuko du; txosten hori kontratazio-organoari jakinaraziko zaio, B gutun-azala irekitzen denetik egutegiko bost (5) egun igaro baino lehen. Lizitatzailleen zerrenda antolatua jasoko da txostenean, (baztertu ez diren) lizitatzailleen guztirako puntuazio handienetik txikienera, eskaintza ekonomikoaren eta eskaintza teknikoaren puntuazio partzialak adierazita eta emandako puntuazioak arrazoituta.

Adjudikatzeko proposamen hori kontratazio organoari bidaliko zaio, adjudikazioa egin dezan.

Puntuaziorik handiena atera duen lizitatzailleak akats zuzengarriren bat badu eskaintzan, zuzendu egin beharko du VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen kontratazio organoak esleipena egin baino lehen. Adierazitako epean zuzendu ezean, adjudikazioa hartzeko eskubideak galduko ditu, eta puntuazio handiena duen hurrengo lizitatzaillearekin jarraituko da prozedura.

15) Balio anormalak edo neurriz kanpokoak dakartzaten eskaintzak baloratzeko irizpideak

Prezioa eskaintzarik onena ebazteko parametro bakarra ez denez, gutxieneko atalase bat ezarriko da, eta atalase horretan oinarrituta eskaintza anormala edo neurriz kanpoko delako joko da, aurkeztu diren eskaintzen batez besteko prezioaren 100eko 50ari atxikitakoa aintzat hartuta, dena delakoaren eskaintza eta prezio handienekoa kenduta. Bi eskaintza aurkezten badira, balio anormalak edo neurriz kanpokoak dituen eskaintzat jotzeko, batez besteko prezioa preziorik handieneko eskaintzarena izango da.

Eskaintzak balio anormalak dituela edo neurriz kanpoko delako iritziz gero, lizitatzailari eskatuko zaio bere eskaintzaren balio horiek justifikatzeko; dena dela, kontratazio organoaren aburuz, azalpen hori nahikoa ez bada, eskaintza hori lizitazio prozeduratik kanpo utz dezake.

16) Kontratua adjudikatzeko irizpideak

Guztira **100** puntu eman daitezke, honela banatuta:

Eskaintza ekonomikoa: **60 puntu.**

Eskaintza teknikoa: **40 puntu.**

Eskaintza teknikoaren barruan, 15 puntu erabiliko dira arau matematiko baten arabera ebalua daitezkeen alderdiak baloratzeko; eta 25 puntu, berriz, balio judizioen arabera ebaluatzeko.

Baldintza teknikoen agirian zehazten da puntu horien banaketa zehatza; hona hemen:

Balorazio irizpidea	Irizpide-mota	Gehieneko puntuazioa
Lanaren plan Integrala	Balio judizioa	16 puntu
Eragin ekonomikoari buruzko txostena	Balio judizioa	9 puntu
Giza baliabideek erantzuteko gaitasuna	Formula matematikoa	10 puntu
Esperientzia aireportuko inguruneetan	Formula matematikoa	5 puntu
Eskaintza teknikoa		40 puntu

Eskaintza ekonomikoaren balorazioari gagozkiola, **60 puntu** emango zaizkio gehienez, jarraian zehazten den formula aplikatuta:

Aurkeztutakoetan prezio merkeena dakarren eskaintzak (Oe) 60 puntu jasoko ditu, eta gainerako eskaintzen balorazioa alderantzizko proportzioan zehaztuko da, formula honen arabera:

$$P = 60 * (Oe/Of)$$

P: Eskaintzari dagokion puntuazioa

Oe: Eskaintzarik merkeena

Of: Egindako eskaintza

17) Bi eskaintzaren edo gehiagoren arteko berdinketa ebaztea

Guztizko puntuazioan bi eskaintzaren edo gehiagoren arteko berdinketa gertatzen bada, eskaintza ekonomiko onena duenaren alde ebatziko da; eta berdinketak irauten badu, balio judizioen arabera puntuatu beharreko alderdietan puntuaziorik onena duenaren alde.

18) Adjudikazioa

Kontratazio organoak, balorazio irizpideak kontuan hartuta, eskaintza onenari esleitu dio kontratua; horretarako, proposamen bakoitzaren balorazio zehatzaren berri eman beharko du balorazio irizpide guztietan, eta kontratua esleitu du. Adjudikazioa egiteko, Batzorde teknikoak egindako adjudikatzeko proposamenaren txostena hartuko da kontuan, eta VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen Administrazio Kontseiluko presidenteak, kudeatzaileak eta idazkariak egingo dute.

Adjudikazioa kontratazio organoak esleitu eta hurrengo egunetik aurrera jendaurreartu ahalko da.

Eta adjudikaziodunari eta gainerako lizitatzailerei jakinaraziko zaie.

Adjudikaziodunari baldintza hauek guztiak bete beharko ditu kontratua egin aurretik:

a) Zerga betekizunak

- Zerga Administrazioako Estatu Agentziak emandako ziurtagiri positiboaren jabe izatea, zerga betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena, edo horiek aurkezteko betebeharrak ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena. Ziurtagiri hori Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak ezarritako moduan eskuratu behar da.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Zerga Administrazioak eta Foru Administrazioak emandako aldeko ziurtagiriaren jabe izatea, Euskal Autonomia Erkidegoarekin edo Arabako Foru Aldundiarekin zerga zorrik ez duela egiaztatzen duena. Ziurtagiri hori Administrazio Elektronikoa buruzko 21/2012 Dekretuak ezarritako moduan eskuratu behar da.

b) Gizarte Segurantzarekiko obligazioak

- Gizarte Segurantzako Lurralde Diruzaintzak emandako ziurtagiri positiboaren jabe izatea, Gizarte Segurantzarekiko obligazioak egunean dituela egiaztatzen duena, edo betebeharrak aurkezteko betebeharrak ez duela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.

c) Jarduera ekonomikoen gaineko zerga

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan kontratuaren xedeari eta horren ordainketari dagokien epigrafean alta emanda dagoela egiaztatzen duen agiria. Horretarako, azken ekitaldiko ordainketa gutunaren kopia aurkeztu beharko da, eta horrekin batera erantzukizunpeko adierazpen bat, zerga horren matrikulan baja eman ez duela adierazten duena.

Zerga horretatik salbuetsita egonez gero, horren justifikazio adierazpena aurkeztuko du adjudikaziodunak.

d) Beste dokumentu batzuk

- Bere enpresakoak ez diren giza baliabideak edo baliabide materialak atxikiz gero: baliabide horien zerrenda eta kontratuak irauten duen bitartean baliagarritasunaren erantzukizunpeko adierazpena.

- Kontratatzeko gaitasuna egiaztatzeko beste edozein agiri, edo lizitazio honetan egindako eskaintzaren arabera kontratua gauzatzeko erabili edo atxikitzeko konpromisoa hartu duten bitartekoak benetan badituela egiaztatzen duen beste edozein agiri.

Betekizun horiek betetzeko, jakinarazpena egin eta hurrengo bost egun baliodunetan aurkez ditzala eskatuko dio organoak adjudikaziodunari, betiere kontratua sinatu baino lehen.

Behar bezala egiaztatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, esandako dokumentazioa adierazitako epean aurkezten ez bada, adjudikaziotik kanpo geratuko da; orduan, kontratua bigarren balorazio onena duen enpresari esleitu ahalko zaio, eta azkenak klausula honetan adierazitako betekizunak bete beharko ditu. Nolanahi ere den, lizitazioa esleitu gabe utzi ahalko da eta lizitatzailerak behin betiko bermea galduko du.

19) Kontratua egitea

Dokumentazioa aurkeztu eta ados dagoela adierazi ondoren, adjudikaziodunari deitu egingo zaio VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen egoitzan kontratua formaliza dezan, jakinarazpena egiten denetik gutxienez bost egun balioduneko epean.

Kontratuak, gutxienez, SPKLren 35. artikulua dakartzan xedapenak jaso beharko ditu.

Kontratistak notarioaren aurren egiletsi nahi badu, bere kontura izango dira notario gastuak edo horren ziozko bestelako gastuak.

Kontratua adierazitako epean egiten ez bada, kontratistari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratazio organoak beste epe bat finkatu ahalko du, edo bestela, behin betiko bermea konfiskatu eta beste adjudikazio bat egitea izango du.

20) Behin betiko bermea eratzea eta behin-behineko bermeak ezerezteka edo itzultzea

Kontratua esleitu ondoren, behin betiko bermea eratuko da, eskaintako prezio osoaren ehuneko bostekoa, BEZik gabe. Bermea banku abalaren bidez eratuko da.

21) Konfidentzialtasuna

Kontratua egin ondoren, kontratuaren baldintzak isilpean gordetzeko konpromisoa hartzen du kontratistak. Ezingo die edukiari eta klausulei buruzko informaziorik eman hirugarrenei, VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen idatzizko baimenik gabe; edo uztailaren 27ko 5/2018 Errege Lege Dekretuarekin bat etorritik (5/2018 Errege Lege Dekretua, Espainiako Zuzenbidea Europar Batasunaren datuen babesaren arloko araudira egokitzeko premiazko neurriei buruzkoa; eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen duena [Datuk Babesteko Erregelamendu Orokorra]).

22) Prezioak berrikustea

Ez da prezioak berrikustea aurreikusten.

23) Kontratua egikaritzea

Kontratua kontratistaren arrisku eta menturaz egikarituko da.

Kontratua bere klausuletan eta baldintza agirietan ezarritakoaren arabera gauzatuko da, eta kontratazio organoak kontratistari interpretatzeko ematen dizkion jarraibideen arabera.

Kontratista arduratuko da egiten dituen lanen kalitate teknikoaz eta egiten dituen prestazio eta zerbitzuez, bai eta VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietateari edo hirugarrenei kontratua gauzatzean egiten zaizkion omisio, akats, metodo desagoki edo ondorio okerren ondorioez ere.

Kontratistak isilpean gorde behar ditu kontratuaren xedearekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, publikoak edo nabarmenak ez direnak, baldin eta kontratua gauzatzean ezagutzen baditu, baldintza hauen 21. klausulan ezarritakoari jarraikiz.

Kontratistak kontratuan parte hartzen duten azpikontratisten edo hornitzaileen zerrenda zehatza bidaliko dio kontratazio organoari, horrek hala eskatzen duenean, bai eta ordainketa epearekin zuzeneko lotura duten azpikontratazio edo hornidura baldintzei buruzko azalpenak ere.

Era berean, kontratazio organoaren eskariz, ordainketak egin izanaren egiaztagiria aurkeztu beharko du, prestazioa amaitu ondoren, SPKLren 216. artikulua eta abenduaren 29ko 3/2004 Legearen 4. artikulua ezartzen duten legezko ordainketa epeen barruan, aplikagarri zaion guztian.

24) Kontratistaren betebeharrak

Aipatutako betebeharez gain, kontratistak betebeharrak hauek ditu:

a) Lan, gizarte eta ekonomia betebeharrak.

Egin behar diren lanei atxikitako langileak kontratistari loturik egongo dira soil-soilik, eta kontratistak enpresaburu gisa dituen eskubide eta betebeharrak guztiak bete beharko ditu.

Oro har, kontratistak bere gain hartuko ditu enplegatzaile gisa ezartzen zaizkion betebeharrak guztiak, bai eta haren edo haren azpikontratisten eta bateko eta besteko langileen arteko lan harremana edo bestelako harremana erregulatzen eta garatzen duten arau guztiak ere, eta VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietatearen aurka ezin izango du inolako isun, zehapen edo erantzukizunik jasanarazi, baldin eta erakunde eskudunek jartzen badiote arestian esandako horietakoren bat ez betetzeagatik.

Nolanahi ere, kontratistak kalte-ordaina emango dio VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA asozietateari baldintza agiri honetan ezarritako betebeharrak ez betetzeagatik ordaindu behar duen zenbateko ororengatik, nahiz eta hori ebazpen judizial edo administratiboaren bidez ezarri.

Kontratistaren kontura izango dira:

i) Kontratututako zerbitzua egiteko behar diren baimenak eta lizentziak, agiriak edo edozein informazio eskuratzea, ofizialak zein pribatuak direla.

ii) Materialak egiaztatze, egikaritze prozesua zaintzeko eta bermearen epean laguntza emateko gastuak.

iii) VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietateari eta hirugarrenei zerbitzua gauzatzeak eskatzen dituen eragiketen ondorioz eragindako kalteak ordaintzea, salbu eta kalte horiek VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietatearen berehalako eta zuzeneko agindu batek eragin baditu.

b) Aseguruak

Kontratistak nahitaezko aseguruak harpidetuta eduki beharko ditu, bai eta kontratua egikaritzearen ziozko erantzukizuna estaltzen duen asegurua ere, hala badagokio, baldintza tekniko berezien agirian adierazitako baldintzetan.

c) Komunikazioak

Kontratistak kontratuaren arduraduna eta VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA enpresarekiko solaskidea dena izendatuko du kontratua gauzatzeko, horren telefonoa, faxa eta posta elektronikoko helbidea adierazita, iraunkortasunez komunikatu ahal izateko. Posta elektronikoz egiten diren komunikazioak behar bezala egindakotzat joko dira, bai bidalketa datari eta orduari dagokienez, bai haien edukiari dagokionez.

Halaber, beharrezkoa izanez gero, kontratua gauzatzeaz arduratzen diren beste pertsona batzuen izen-abizenak, laneko telefono zenbakiak, fax zenbakiak eta posta elektronikoko helbideak emango ditu, kontratu honetan beren gain hartzen duten kargua eta erantzukizuna azalduta.

d) Banku izapideak

Kontratistak kontu korrante baten berri emango du, kontuari dagozkion IBAN eta SWIFT kodeak adierazita, Espainian jarduten duen finantza erakunde batekoa, VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietateak ordainketak kontu horretan egin ahal izan ditzan banku transferentzia bidez.

e) Azpikontrataziorik eza

Kontratistak konpromisoa hartzen du bere eskaintzan adierazitakoaz landa ez azpikontratatzeko kontratu honi atxikitako prestazioak gauzatzeko helburuz.

25) Epeak eta zehapenak

Kontratuak hamasei hilabeteko epea izango du gauzatzeko. Kontratua 2026ko apirilaren 1ean hasiko da, eta 2027ko uztailaren 31n amaituko da, agiri honetako 28. artikulua xedatzen duen luzapena ezertan eragotzi gabe (VIA Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietatearen eta AENAREN artean indarrean dagoen hitzarmenaren eta hitzarmen horren berritzearen —2027ko uztaila— arabera iraupena).

Beraz, kontratista behartuta dago kontratua adierazitako epearen barruan betetzera, kontratuaren hizpaketeak eta administrazio baldintza berezi eta teknikoaren klausulek diotenarekin bat etorritik.

Kontratista kontratua gauzatzen berandutzen bada edo gaizki betetzen badu, VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietateak kontratua suntsiarazteko, behin betiko bermea galduta, edo zehapenak ezartzeko aukera izango du, SPKLren 192. artikulua ezarritako moduan eta baldintzetan.

Zehapenen zenbatekoak ez du bazter uzten kontratistaren berandutzeagatik Administrazioak izan dezakeen kalte-ordaina jasotzeko eskubidea.

Atzerapena kontratistari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen bada, SPKLren 195. artikulua xedatutakoari jarraituko zaio.

26) Ordainketen araubidea

Ordaintzeko modua adjudikaziodunaren eta VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen artean egin beharreko kontratuan zehaztuko da.

27) Kontratua aldatzea eta suntsiaraztea

I. Kontratua aldatu ahal izango da SPKLren 204. Artikuluak xedatzen duenari jarraikiz. Beharrezkoa bada, hasieran aurreikusi gabeko zerbitzu gehigarriak sartu ahalko dira; edo bestela, kontratatutakoren bat kendu ahal izango da, beharrezkoa ez bada.

Aldaketa horrek ezin izango du hasierako balioaren % 20 gainditu (luzapen aldia ere barne).

II. Kontratua aldatu ahal izango da Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 205. Artikuluak xedatzen duenarekin bat etorriz, ustekabeko inguruabarrak eta interes publikoko beharrak direla eta.

III. Kontratua suntsiarazi egingo da honako arrazoi hauetakoren bat gertatzen bada:

a) Banako kontratista indibidualaren heriotza edo ezintasuna, edo sozietate kontratistaren nortasun juridikoa amaitzea, hargatik eragotzi gabe SPKLren 98. artikulua xedatzen duena.

b) Konkurtsoa deklaratzeko edo kaudimengabezia deklaratzeko beste edozein prozeduratan.

c) Administrazioa eta kontratista ados jartzea.

d) Kontratista epeak betetzen berandutzea.

e) VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietateak SPKLren 198.6 artikulua 6. paragrafoan ezarritakoa baino epe luzeagoan edo 8. atalaren babesean ezarritako epe laburragoan ordaintzen berandutzea.

f) Kontratuan halakotzat jotako gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

g) Prestazioa ezin gauzatzea hasieran itundutako baldintzetan, edo VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietatearen interesari kalte larriren bat egiteko benetako aukera sortzea, prestazioa baldintza horietan gauzatzen jarraituz gero, kontratua aldatu ezin bada aurreko klausulan xedatutakoaren arabera.

h) 28.I. klausulan adierazitako kontratu aldaketei ezezkoa ematea.

i) Gasteizko aireportuan bidariaren jarduerarik ez egotea.

j) Halaber, kontratua azkenduko da, baldin eta lizitazio honen xede den zerbitzua eten behar bada, alderdiekin zerikusirik ez duten eta alderdiei egotz ezin dakizkiekeen arrazoiengatik; edo administrazioaren edo epailearen aginduz.

Kontratuak kontratua suntsiarazteko arrazoiak eta ondorio juridikoak zehaztuko ditu, bereziki kontratistak edo VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria SA sozietateak kontratua ez betetzearen ziozkoak.

28) Kontratua luzatzea

Hamasei hilabeteko luzapena ezartzen da, Euskal Autonomia Erkidegoko SPKLren 29. artikulua xedatzen dituen betekizunei loturik; hau da, VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietateak erabaki ahal izango du, eta nahitaezkoa izango da kontratistarentzat; luzkapena egikaritze epea amaitu baino bi hilabete lehenago jakinarazi beharko da.

29) Kontratua betetzea eta azkentzea

Kontratua bete ondoren, arrazoi horrengatik azkendu dela ulertuko da ondorio guztietarako, beharrezko berme epea ezertan eragotzi gabe.

Kontratua betetzat jotzeko, kontratazio organoak kontratuaren betetze maila erabakiko du, eta kontratistari jakinaraziko zaio.

Jasotzen denetik aurrera, berme epea zenbatzen hasiko da.

30) Likidazioa

Kontratua amaitzean, VIA, Promoción del Aeropuerto de Vitoria, SA sozietateak jasan beharreko zenbatekoren bat edo erreklamazioren bat badago, kontratistarekin likidatuko da zuzenean.

31) Kontratazio organoaren prerrogatibak

Kontratazio organoak SPKLren 190. artikulua ezarritako prerrogatibak ditu.

32) Jurisdikzio eskuduna

Kontratu hau interpretatzearen edo gauzatzearen ondorioz sortzen diren auzi guztiak ebazteko jurisdikzio eskuduna Gasteizko epaitegiak eta auzitegiak dira, alderdiek egoitza Gasteizen badute eta prestazioa Gasteizen gauzatzen bada, baina gaiaz arduratu behar duen organo judiziala Gasteizen ez badago; kontratistari legokiokeen foruari berariaz uko egingo dio.

33) Dokumentuak aurkezteko modua

I. Lizitatzailer bakoitzaren erantzukizuna da aurkeztu beharreko dokumentazioa. Eta dagokion eskaerara egokitu beharko da aurkezpenean.

II. Prozedura honetan erabili behar diren eranskin guztien zerrenda erantsi da, eranskin bakoitzeko eredu bat emanda. Eredu horiek ez dira nahitaez bete beharrekoak. Alabaina, haietan adierazten den bezala betetzen badira eta eskatutako informazioan edo aitortzean akatsen bat balego, akats konponezintzat jo ahal izango da. Eredu horiek kontuan ez badira, akreditazio egoki ezaren erantzukizuna lizitatzailerarena izango da bakar-bakarrik.

Gainera, gutun-azal bakoitzeko adierazi da zer eranskin atxiki behar den.

A gutun-azalean (dokumentazio orokorra) sartu behar diren eranskinak: Dokumentazio orokorra

Eranskina	Eranskinaren izenburua	Baldintza agiriaren klausula
II. eranskina	Datu pertsonalak tratatzeko baimena	11.a) klausula – Dokumentazio orokorra, 4. atala
III. eranskina	Jarduteko gaitasunari eta kontratatze debekurik ezari buruzko erantzukizunpeko adierazpena	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 1. atala
IV. eranskina	Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 2. atala
V. eranskina	Baldintza agiriak prestatzen parte hartu ez izanaren adierazpena	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 3. atala
VI. eranskina	Bateraezintasunik ez dagoelako adierazpena (1/2014 Legea)	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 4. atala
VII. eranskina	Datu fiskalak eta Gizarte Segurantzakoak egiaztatze baimena	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 5. atala
VIII. eranskina	Desgaitasunari edo ordezeko neurriei buruzko araudia betetzen dela adierazten/egiaztatzen duen adierazpena	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 6. atala
IX. eranskina	Emakumeen eta gizonen benetako berdintasunerako adierazpena/plana (3/2007 LO), hala dagokionean	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 7. atala
X. eranskina	Talde bereko enpresen aitortpena	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 8. atala
XI. eranskina	Konfidentzialtasun adierazpena	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 9. atala
XII. eranskina	Azpikontatazioaren adierazpena	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 10. atala
XIII. eranskina	Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa izendatzea	11.d) klausula – Erantzukizunpeko adierazpenak, 11. atala
XVIII. eranskina	Aplikatzekoa den araudia betetzen dela dioen erantzukizunpeko adierazpena	8. klausula – Araudia betetzea (agiri tekniko)
XIX. eranskina	Kontratuko baldintzak eta betebeharrak betetzeko berariazko konpromisoa	8. klausula – Araudia betetzea (agiri tekniko)

**B gutun-azalean (Eskaintza ekonomikoa formula baten arabera baloratzeko dokumentuak)
sartu behar diren eranskinak**

Eranskina	Eranskinaren izenburua	Baldintza agiriaren klausula
I. eranskina	Eskaintza ekonomikoaren eredua	11. klausula – B gutun-azala
XVI. eranskina	Giza baliabideek erantzuteko gaitasunaren adierazpena (giza baliabide gehigarriak)	6. klausula – Giza baliabideak (agiri teknikoak)
XVII. eranskina	Aireportu inguruneetako esperientziaren erantzukizunpeko adierazpena	7. klausula – Esperientzia aireportuetako inguruneetan (agiri teknikoak)

C gutun-azalean sartu behar diren eranskinak Balio judizioen arabera baloratzeko okumentazio teknikoa

Eranskina	Eranskinaren izenburua	Baldintza teknikoaren agiriaren klausula
XIV. eranskina	Laneko Plan Integralean jasotako informazioa egiazkoa dela dioen erantzukizunpeko adierazpena	5.1 klausula – Laneko Plan Integrala (Agiri Teknikoa)
XV. eranskina	Eragin ekonomikoari buruzko txostenean jasotako informazioa egiazkoa dela dioen erantzukizunpeko adierazpena	5.2 klausula – Eragin ekonomikoari buruzko txostena (agiri teknikoak)

34) Prozeduraren hizkuntza

Eskaintzak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan aurkeztu ahal izango dira, hau da, euskaraz edo gaztelaniaz.

Ez dira onartuko beste hizkuntza batean aurkeztzen diren eskaintzak.